ESKUBIDE KULTURALAK



artaziakoop

Fanzine honen edukia Artaziakoopek 2024ko martxoaren 20an Intxaurrondo Kultur Etxean antolatutako **ARI! Eskubide kulturalak. Begirada aldaketa** jardunalditik abiatuta egin da.

Ideia: **Artaziakoop**
Diseinua eta marrazkiak: **Ane Zaldibar**

Info gehiago:



KULTURA?

ZERTARAKO?

NOLA?

NORENTZAT?

ZER?

NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALAREN 27. ARTIKULUAK DIO:

“PERTSONA OROK DU ESKUBIDEA KOMUNITATEAREN KULTURA BIZITZAN ASKATASUNEZ PARTE HARTZEKO, ARTEEZ GOZATZEKO ETA AURRERAPEN ZIENTIFIKOAN ETA HAREN ONURETAN PARTE HARTZEKO”

LABURBILDUZ, PERTSONA GUZTIOK DUGU KULTURARA IRISTEKO ESKUBIDEA, BERTAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA, EKARPENA EGITEKO ESKUBIDEA ETA BERE ANIZTASUNA BABESTEKO ESKUBIDEA

OK BAINA ARGITZE-KO ...

NOR DA BETAURREKODUN HORI?

DANIEL GRANADOS, BARTZELONAKO UDALEKO KULTUR ESKUBIDEEN ORDEZKARIA IZAN DA. "FEM CULTURA" PLANA DISEINATU ETA BULTZATU ZUEN HAN.

A! BEGIRATUKO DUT!



ZER DA KULTURA?

GUZTI HAU KULTURA DA...

IKUSTEN DUZUNEZ...EZ DAGO KULTURA BAKAR BAT, ASKO DAUDE. ETA EZ DAGO BATA BESTEAREN GAINETIK DAGOEN KULTURARIK.

ETA OOOSO GARRATZISUA DA, GURE GIZATASUNA ADIERAZTEKO ETA GIZAKION BIZITZARI ZENTZUA EMATEKO ESPAZIOA DELAKO...

"KULTURA, HERRITARREK PARTEKATZEN DITUZTEN ERRONKEI ERANTZUNAK IRUDIKATZEKO BALIATU DEZAKETEN SORMEN LANTEGIA DA."

(LA CARTA DE ROMA 2020)

CLARAK MARGOTU EGITEN DU

MAYLISEK DANTZATU

GABRIELEK BEGIRATU

ASTRIDEK PROPOSATU

EIDERREK JOLASTU

ADAMEK SURFEATU

MAITANEK ETA MARTAK HAUSNARTU

ALBAK LAGUNDU

MADDIK IRAKURRI

ENEKA ADI DAGO

PAULEK HITZ EGITEN DU

ANEK ENTZUN

AIERTEK TXOKOLATEA JAN

HODEIK DESMUNTATU

IÑAKIK ZEHARKATU EGITEN DU

ROSA ERALDATU EGITEN DA

ADOS... BAINA GUZTI HAU GERTATZEN ARI BADA, ZERTARAKO HAINBESTE AHALEGIN KULTUR ESKUBIDEAK AITORTU ETA ZABALTZEKO?

IZAN ERE, KULTURA, ZEHARKATZEN DUENEAN, ERALDATZAILEA DA.
(Cristina Alonso)

GERO KONTATUKO DIZUET NOR DEN CRISTINA ALONSO.

BA BEGIRA...

BEHARREZKOA DELAKO. KULTURA LEKU GUZTIETAN DAGO, ETA GARRANTZITSUA DA BADAGOKIGULA OHARTZEA. NORTASUNA, PERTENENTZIA SENTIMENDUA, ANIZTASUNA, ELKARBIZITZA, KAPITAL SOZIALA ETA SORTZEKO AUTONOMIA EMATEN DIZKIGU. **BAAAAINA** GARRANTZITSUA DA BAITA ERE JAKINTZA HORIEK JOKOAN JARTZEKO ESPAZIOAK EXISTITZEA ETA GUZTIA ERRAZTUKO DUTEN KULTUR POLITIKAK EGOTEA.

ETA GAUR EGUN, ESPAZIO HORIEK...

EZ DIRA FEMINISTAK

EZ DIRA INKLUSIBOAK

EZ DIRA ADIERAZGARRIAK

EZ DIRA ANITZAK

EZ DIRA PARTE-HARTZAILEAK

ZERGATIK USTE DUZUE KULTUR PROGRAMAZIO PUBLIKOA BETI LEKU BERBERETAN GERTATZEN DELA?

GUTXI BATZUEK AUKERATZEN DUTELAKO!

ETA KULTURA PROGRAMATZEN DUTEN BERAK DIRELAKO KONTSUMITZEN DUTENAK!



ZERGATIK HEMEN BAI?

ZERGATIK DA HAU BALIOZKOA?





ETA HEMEN EZ?

ZERGATIK HAU EZ DA BALIOZKOA?



HARA! EGIA DA...EZ NAIZ ORAIN ARTE KONTURATU...ETA NOLA EGIN DAITEKE ALDATZEKO?



BA, ALDE BATETIK, ESKUBIDE HORIEK BERMATUKO DITUZTEN KULTUR POLITIKA PUBLIKOAK EXIJITUZ, ZEINAK DESBERDINTASUNAREN AURKA BORROKATUKO DUTEN ETA HERRITARREN AUKERAK ZABALDUKO DITUZTEN. IRUDIKATU DEZAGUN KULTUR POLITIKAK ERREPIDE ZABALAK DIRELA, ETA BERTATIK KULTURA MUGITZEN DELA, BERE ANIZTASUN GUZTIAREKIN.

JARDUNALDIETAN ESAN NUEN:

MAITASUNA AURREKONTUETAN ERAKUSTEN DA

GOIAN DAGOEN HAU CRISTINA ALONSO DA. KULTURA ETA ONDASUN POLITIKA KOMUNEN GARAPENEAN LAN EGITEN DU, KULTURAREN, KOMUNITATEAREN ETA HEZKUNTZAREN ARTEKO HURBILTASUN ETA EKOSISTEMEN ERAIKUNTZA LOGIKAREN BIDEZ.

ESKERRIKASKO! JUSTO GALDETU BEHAR NIZUN :-)


PROGRAMAZIOETAN PARTE HARTU NAHI DUGU!
GALDE DIEZAGUTEN: ZERK MOTIBATZEN GAITU?
ZERK HUNKITZEN GAITU?
ZERK INTERPELATZEN GAITU?
PROGRAMATZEN DENA GURETZAT INTERESGARRIA IZATEA!
ETA ZUK ERE ALDAKETAN PARTE HARTU DEZAKEZU. KULTUR ERAGILEA ZARA!
NIK? BENETAN?

BAI! ZUK! ETA ZUK IRAKURLE ERE!

IZAN ERE, KULTURA PUBLIKOA IZAN DADIN ZERGAK ORDAINTZEN DITUZU, HORREGATIK, ESKUBIDE ETA ZILEGITASUNA DUZU KULTUR ESPAZIO PUBLIKOETAN GUSTATZEN ZAIZUN ZERBAIT ANTOLATZEKO EDO/ETA PLANTEATZEKO.

ZIUR ESATEKO GAUZA ASKO DITUZULA, PROPOSATZEKO, SORTZEKO, ESPERIMENTATZEKO, HAUTATZEKO, PROBATZEKO, BAITA HUTS EGITEKO ERE

.....
.....
.....
.....
.....

BEGIRA: ADIBIDE GUZTI HAUEK INIZIATIBA HARTU ETA JAKINTZA ETA INTERESAK PARTEKATZETIK SORTU DIRA:



EGIAN, OSASUN MENTALARI BURUZ HITZ EGITEKO ELKARTZEN GAREN PERTSONA BATZUK ZINEMA TAILER BAT EGITEN ARI GARA ETA ZINEMA ARETO BATEAN FILM BAT PROGRAMATUKO DUGU.

AMARAN, JATORRI EZBERDINETAKO EMAKUME TALDE BATEK AUZOKO FESTETAN PARTE HARTU DUGU, BAKOITZAK BERE HERRIALDEKO DANTZAK ETA JANARI ERREZETAK PARTEKATUZ.





DONOSTIAN, 55 URTETIK GORAKO PERTSONA TALDE BAT HIRIAN ZEHAR PASEATZEKO GERATZEN GARA. AITZAKIA PASEATZEA DA, IRABAZIA GURE ARTEAN SORTZEN DIREN BINKULUAK.

AMARA BERRIN AUZOTARREK ANTZERKI KOMUNITARIOKO TALDE BAT SORTU DUGU, KULTURA HERRIKOIAREN ETA OROIMEN HISTORIKOAREN INGURUKO ISTORIOAK KONTATZEKO.



BUA! ETA EDERRA LITZATEKE ADIBIDE GUZTI HAUEK (ERREALAK DIRENAK) PLAN ESTRATEGIKO BATEN PARTE IZANGO BALIRA, SARE LANAREN BIDEZ POSIBLE EGINEZ, PROPOSAMEN ISOLATUAK IZATEARI UZTEKO ETA EGITURAZKO APUSTUA IZATEKO.

HALA DA BAI!

PUNTU HONETARA IRITSITA...

HAU IRAKURTZEN ARI BAZARA ETA POLITIKARIA BAZARA, PROGRAMATZAILEA EDO ERAKUNDE PUBLIKO BATENTZAT LAN EGITEN BADUZU, HONA HEMEN IRADOKIZUN BATZUK:

BEGIRADA ZABALDU ETA ARRETA JARRI ERTZETAN GERTATZEN DENARI!

JABETU ZAITEZ PROZESUEK DENBORA BEHAR DUTELA, PRESAK EZ DU LAGUNTZEN

GALDETU!

ESKAINI ZURE EKIPAMENDUA HERRITARREK SORMENERAKO ESPAZIOAK IZAN DITZATEN!

LAGUNDU!

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK SUSTATU

DINAMIKA PUBLIKOETAN PITZADURAK IREKITZEAREN ALDEKO APUSTUA EGIN!

ESPERIMENTATU!

ENTZUN ZURE AUZOKO ELKARTEEN PROPOSAMENAK

ASMATU GOBERNANTZA EREDU PARTEKATUAK

KONTUAN IZAN ZURE INGURUKO IDENTITATE EDO PRAKTIKA KULTURALAK.

ATERA ZURE KONFORT EREMUTIK!

IKASI ZIURGABETASUNA EUSTEN ETA EZ LAN EGIN BETI "NORABIDE FINKOAN"

ETA...

EGIN
ZEHARKAKO LANA BESTE SAIL BATZUEKIN
HAU DA...
GURUTZATU!

EHUNA GURUTZAKETAREN EMAITZA DA



AIIIIIII
ENEEEEEE BEGIRA
ARI ZAIZKIGU!

BAZEN GARAIA

¡UAU! INTERESGARRIA E!

BA BAI!

NIK NERE AUZOKO KULTUR ETXEAN BIZILAGUNEKIN KORO BAT EGITEA PROPOSATUKO DUT

A! ZE GUAY! LAGUNDUKO DIZUT!

NIK ERE!

AZKEN DATUTXO BAT...

EUSKO IKASKUNTZA EUSKAL HERRIKO ELKARGUNE ZIENTIFIKO / KULTURALA DA, ETA ONDOAN DAUKADANA IKER ATXA DA, BERTAKO ORDEZKARIA.

ESKUBIDE KULTURALEN INGURUAN IKERKETA BAT EGIN DUGU, ORAIN ONDORIOEKIN ARI GARA LANEAN: INSTITUZIO PUBLIKOEN ZEIN ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANA EZINBESTEKOA DA BIDE HAU EGITEKO.

UDALETXE! ESPABILA!



artaziakoop